


20%

Informazio-gida

ESPERIENTZI SORTA 

Jatera gonbidatzen nauzu?



JUSTIFIKAZIOA

Etiketaren helburu nagusia pertsonen osasunaren babes-maila handia lortzea da, eta erosten eta kontsumitzen dutenari buruzko informazio objektiboa jasotzeko eskubidea bermatzea.

Gero eta pertsona gehiagok alderatzen dituzte produktuen etiketak erosi aurretik. Etiketei erreparatzeak ohitura bat izan beharko luke, erosiko dugun elikagaiaren datu objektiboak ezagutzen laguntzeaz gain, osasun-arazoak saihestu baititzake.

HELBURUAK

- Elikagaien nahitaezko etiketak ezagutzea eta horietako bakoitzaren informazio garrantzitsua identifikatzea.
- Kalitate-zigiluak eta produktu ekologikoak identifikatzea.
- Kontsumitzen ditugun produktuen jatorriari eta denboraldiari balioa ematea.
- Haragi- eta arrantza-produktuen etiketako terminoen esanahia ezagutzea.
- Elikagaiak alferrik ez galtzea.
- Kontsumo-ohitura osasungarriak hartzea, plater osasungarri baten proportzioei erreparatuta.
- Elikagaiak biltegitratzean eta manipulatzeko segurtasun-arauak hartzea.

EDUKIAK

- **Elikagaiak etiketatzea.**
 - Ontziratutako elikagaien nahitaezko etiketatzea.
 - Haragiak eta arrainak etiketatzea.
 - Kalitate-markaz etiketatuak.
 - Etiketatzeko ekologikoa.
 - Alergenoak.
- **Hondakinak 0.**
 - Erosketa-prozesuan.
 - Etxean.
- **Dieta orekatua.**
 - Mantenugaiak.
 - Plater osasungarriaren proportzioak.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (Aurretiko jarduera)

- Erosteko ohiturei buruzko gogoeta-testa.

GARAPEN FASEA (saioa)

- Alergenoak.
- Hurbileko produktuak, sasoikoak eta kalitate-zigiluak.
- Ontziratutako elikagaien etiketak.
- Haragiak eta arrainak etiketatzea.
- Dieta osasungarria eta segurtasun-arauak.
- Alferrik galtzea saihestu.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Dokumentazioa aztertzea
- Nabigazio-koadernoaren aurkezpena

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- Zientziarako konpetentzia.
- Arterako konpetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
- Izaten ikasteko konpetentzia.

METODOLOGIA

- Proiektu bidezko ikaskuntza.
- Ikerketa bidezko ikaskuntza.
- Thinking based learning.

ANTOLAKUNTZA

IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Tableta edo ordenagailua. Internetarako sarbidea.	Banaka edo ikasgelan garatzeko jarduera. Azken jarduerak sukalde-espazio bat eskatzen du.	15 ordu

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.